**Actualizado a:** 11/09/2024

# Convocatoria 2024 de las subvenciones del programa Sukalberri para el impulso de la gastronomía en Gipuzkoa

**Destinatarios:** Comercios, empresas y locales de asociaciones y/o entidades

## Información de interés

**Ámbito gegráfico:** Gipuzkoa

**Organismo:** Diputación Foral de Guipuzcoa

**Administración:** Administración Local

**Plazo(s) de solicitud:** 12/09/2024

**Notas solicitud:** Última convocatoria, hasta el 12 de agosto de 2024. En espera de próxima convocatoria

**Tipo:** Subvención

**Importe:** 295,000.00€

**Notas:** Crédito 2024: 295.000 euros

**CEE:**

**Enlaces:** https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones

## Referencias de la publicación

- Orden Foral 183/24. Boletín Oficial de Gipuzkoa número 132 de 9 de julio de 2024. (Convocatoria)

| Sectores | Subsectores | Descriptores |
|---|---|---|
| Turismo | Mejora de estructuras | Activos fijos inmateriales<br>Asistencia técnica<br>Fomento de la gastronomía<br>Innovación tecnológica |



Resumen de la Ayuda elaborado a partir de la Publicación Oficial de referencia. Recopilado y procesado por la Dirección General de Industria y de la Pyme

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko uztailaren 9a, asteartea — 132 — Martes, a 9 de julio de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoan gastronomiaren sektorea sustatzeko Sukalberri dirulaguntza programaren 2024ko deialdia.*

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak, 2024ko ekainaren 27an, 183/2024 Foru Agindua eman du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024/2027 aldirako Plan Estrategikoak ikuspegi gisa definitzen du «Gipuzkoa komunitate arduratsu, berdintasunezko, orekatu eta justua, ekonomia lehiakor, berritzaile eta jasangarria duena, pertsona guztien ongizate integrala zaintzen duena eta etorkizuna, osotasuna eta zentzua duten proiektuak garatzeko aukerak sortzen dituena.»

Horrek guztiak eraldaketa teknologikoko prozesu globalei aurrea hartzeko beharra dakar, eraginkortasunaren, lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik sortuko diren aukera berriak aprobetxatuz, eta prestakuntza, talentua atxikitzea eta erakartzea, enpresa-kultura edo gizarte-harremanak bezalako eremuetan sortzen diren erronkei erantzunez, pertsonak alde batera utzi gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz proiektuaren bidez, Gipuzkoaren etorkizuneko erronkak identifikatu nahi ditu eta erronka horiei erantzuna eman nahi die, irtenbide zehatz, erreal eta eraldatzaileen bitartez, gastronomiaren balio katea delarik han sartutako proiektu estrategikoetako bat.

Euskadi orokorrean, eta Gipuzkoa bereziki, gastronomia munduko erreferente mundialetako bat da zalantzarik gabe. Gipuzkoako Foru Aldundiak duen erronka da Gipuzkoako gastronomia sektorearen pribilegiozko maila hau mantentzea. Maila hau nabarmena da jatetxeetan eta goi-mailako sukaldaritzan, baina baita «Gastronomia Ekosistema» izeneko beste eragile batzuetan ere, bere balio kate guztian zehar, ekoizleetan hasten dena eta prestakuntza eta osagaien industriatik pasatzen dena azken kontsumitzailera iritsi arte.

Horretarako, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategiko Departamentuko Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritzak, Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan definitutako estrategiarekin bat eginez, Gipuzkoako gastronomiaren balio katean dauden enpresei laguntzeko lerro bat bultzatu nahi du.

Progama honen bidez bilatzen da teknologia berriak balio kate osoan erabiltzea, eragile guztietara iritsi daitezen, eta teknologia berri horien inpaktuari aurrea hartzea, negozio eta kudeaketa eredu berriak definituz. Gainera, programa honek berrikuntza sustatzen du sektorean, nazioarteko lidergoa bultzatuz.

Programa honen bidez lortu nahi da Gipuzkoa gastronomiaren arloko erreferente mundiala izaten jarraitzea, baita XXI. mendeko gizarte berri honetan ere, kalitatezko ezaugarriak dituelako, elikadura osasungarri eta jasangarria bultzatzen duelako, eta teknologia berriak erabiltzea sustatzen duelako, negozio eredu eta

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Convocatoria correspondiente al ejercicio 2024 de las subvenciones del programa Sukalberri para el impulso del sector de la gastronomía en Gipuzkoa.*

La diputada foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos ha dictado, con fecha de 27 de junio de 2024, la Orden Foral 183/2024:

El Plan estratégico de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el período 2024/2027 define como visión la de una «Gipuzkoa, una comunidad responsable, igualitaria, equilibrada y justa, con una economía competitiva, innovadora y sostenible que cuida del bienestar integral de todas las personas y genera oportunidades para el desarrollo de proyectos con futuro, plenos y con sentido.»

Todo ello implica la necesidad de anticiparse a los procesos globales de transformación tecnológica, aprovechando las nuevas oportunidades que surgirán desde el punto de vista de la eficiencia, la competitividad, la innovación y la sostenibilidad, y dando respuesta a los desafíos que surgen en ámbitos como la formación y la retención y atracción de talento, la cultura empresarial o las relaciones sociales, sin dejar de lado las personas.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del proyecto Etorkizuna Eraikiz, pretende identificar y dar respuesta a los retos de futuro de Gipuzkoa con soluciones concretas, reales y transformadoras, siendo la cadena de valor de la gastronomía una de las apuestas estratégicas del Territorio.

Euskadi en general y Gipuzkoa en particular es indudablemente uno de los referentes mundiales en el mundo de la gastronomía. El reto que la Diputación Foral de Gipuzkoa se plantea es colaborar en el mantenimiento del sector gastronómico de Gipuzkoa en esta posición de privilegio. Este posicionamiento es evidente en la restauración y la alta cocina, pero lo es también en otros agentes del denominado «Ecosistema Gastronómico», a lo largo de la cadena de valor que comienza en los productores y pasa por la formación y por la industria de componentes, hasta llegar al consumidor final.

Para ello, desde la Dirección de Innovación e Internacionalización del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, y en línea con la estrategia definida en el marco de Etorkizuna Eraikiz, se impulsa una línea de apoyo a las empresas que pertenecen a la cadena de valor de la gastronomía de Gipuzkoa.

Este programa de ayudas pretende potenciar el uso de las nuevas tecnologías en la cadena de valor de manera que su aplicación llegue al conjunto de agentes, busca anticipar su impacto definiendo nuevos modelos de negocio y de gestión, e impulsa la innovación en el sector y el liderazgo a nivel Internacional.

El programa tiene por objetivo lograr que Gipuzkoa siga siendo un referente mundial en la gastronomía en la nueva sociedad del siglo XXI además de por sus atributos de calidad, alimentación saludable y sostenible, por la incorporación de las nuevas tecnologías en la configuración de nuevas soluciones y modelos de negocio.

EK\CV GAO-I-2024-05023

soluzio berriak diseinatzerakoan. Horretarako, gastronomiaren sektorearen eraldaketa digitala sustatzen da, helburutzat hartuta aldaketak eragitea osagaien eta etxeko gauzen industrian, jatetxeen eta zerbitzu osagarrien sektoreetan jada badauden negozio ereduen bilakaera sustatzea, eta eredu berriak identifikatzea, teknologiak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatuz.

Programa hau Etorkizuna Eraikizen ekimenen esparruan bultzatzen den elikadura jasangarriaren inguruko Misioarekin lerrokatu eta osatzen da. Misio horrek elikadura-sistema iraunkor, seguru, osasungarri eta tokikoago bat sortzen lagundu nahi du, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-iraunkortasunaren bidez, autohornidurarako gaitasuna handituz eta elikagaien enpresa-sarearen garapena eta lehiakortasuna sustatuz.

2024ko deialdian, Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorrak erabiliko dira (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 119. zk., 2021eko ekainaren 25ekoa).

Dirulaguntza ildo hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) jasota dago. Izan ere, Diputatuen Kontseiluaren 2024ko otsailaren 20ko erabaki bidez, aipatutako Plan Estrategikoa luzatu egin da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024. ekitaldirako luzatutako Aurrekontu Orokorretan jasotako dirulaguntzei dagokienez, 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egin eta onetsi bitarte.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT

*Lehenengo.* Onestea Gipuzkoan gastronomiaren sektorea sustatzeko Sukalberri dirulaguntza programaren 2024ko deialdia, Foru Agindu honen eranskinean jasota dagoena.

*Bigarren.* Deialdi honi aurre egiteko 295.000 euroko gastua baimentzea, aurrekontuko partida hauen kargura:

1.0520.220.470.00.04.2024: 100.000,00.

1.0520.220.481.00.02.2024: 77.000,00.

5.0520.220.470.00.04.2025: 68.000,00.

5.0520.220.481.00.02.2025: 50.000,00.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2024ko uztailaren 2a.—Idazkari teknikoa, ez dagoenez, Iñaki Egizurain Nebreda, Lege Aholkularitza eta Koordinazioko atalburua. (5023)

Para ello, impulsa la transformación digital del sector de la gastronomía en Gipuzkoa en orden a provocar cambios en la industria de componentes y del hogar, así como evolucionar los modelos de negocio existentes en la restauración y servicios complementarios, e identificar nuevos modelos desde el aprovechamiento de las posibilidades que la tecnología ofrece.

Este programa se alinea y complementa a la Misión en torno a la alimentación sostenible que se impulsa en el marco de las iniciativas de Etorkizuna Eraikiz y que pretende contribuir a generar un sistema alimentario sostenible, seguro, saludable y más local, a través de la sostenibilidad social, económica y ambiental, con aumento de la capacidad de autoabastecimiento e impulsando el desarrollo y la competitivdad de tejido empresarial alimentario.

En la convocatoria de 2024 se van a mantener las bases reguladoras generales que fueron aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 119, de 25 de junio de 2021).

Esta línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES), prorrogado por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de febrero de 2024 para las líneas de subvenciones contempladas dentro de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa prorrogados para el año 2024, en tanto se procede a elaborar y aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2024 de las subvenciones del programa Sukalberri para el impulso del sector de la gastronomía en Gipuzkoa, que se acompaña como anexo a la presente Orden Foral.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de 295.000 euros para hacer frente a dicha convocatoria con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0520.220.470.00.04.2024: 100.000,00.

1.0520.220.481.00.02.2024: 77.000,00.

5.0520.220.470.00.04.2025: 68.000,00.

5.0520.220.481.00.02.2025: 50.000,00.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas o entidades interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Diputada Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 2 de julio de 2024.—El secretario técnico, por ausencia, el jefe de sección de Asesoramiento Jurídico y Coordinación, Iñaki Egizurain Nebreda. (5023)

EK\CV GAO-I-2024-05023

ERANSKINA

*Gipuzkoan gastronomiaren sektorea sustatzeko Sukalberri dirulaguntza programaren 2024ko deialdia.*

1. *Helburua.*

Gipuzkoan gastronomiaren sektorea sustatzeko Sukalberri dirulaguntza programaren deialdia egitea 2024rako. Programa honen helburua da, Gipuzkoako gastronomiaren sektorean eraldaketa digitala bultzatzea, sektore horrekin zuzenean lotutako tresna, osagai eta tresnen industria fabrikatzailea eraldatzeko, bai eta jatetxe-sektorea eraldatzeko ere, eta dauden negozio-ereduen bilakaera sustatzeko eta berriak identifikatzeko, teknologiak eskaintzen dituen aukerez baliatuta.

Programa hau Etorkizuna Eraikizen ekimenen esparruan bultzatzen den elikadura jasangarriaren inguruko Misioarekin lerrokatu eta osatzen da. Misio horrek elikadura-sistema iraunkor, seguru, osasungarri eta tokikoago bat sortzen lagundu nahi du, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-iraunkortasunaren bidez, autohornidurarako gaitasuna handituz eta elikagaien enpresa-sarearen garapena eta lehiakortasuna sustatuz.

2. *Oinarri arautzaileak.*

Diputatuen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 15eko erabakiaren bidez (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 119. zk., 2021ko ekainaren 25koa) onetsi ziren oinarri arautzaile orokorrak.

3. *Finantzaketa.*

3.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 295.000,00 € da, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0520.220.470.00.04.2024: 100.000 €.

1.0520.220.481.00.02.2024: 77.000 €.

5.0520.220.470.00.04.2025: 68.000 €.

5.0520.220.481.00.02.2025: 50.000 €.

3.2. Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu egin daiteke, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, deialdi berri bat egin beharrik izan gabe. Gehikuntza hori benetan gertatzeko, ezinbestekoa da dirulaguntzak onartzen dituen ebazpena eman aurretik nahikoa kreditu dagoela deklaratzea.

4. *Eskaerak aurkezteko epea.*

4.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko irailaren 12an amaituko da, biak barne.

4.2. Proiektuek ezingo dute hasita egon eskaera aurkeztu aurretik.

5. *Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria.*

Deialdi honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak honako betekizun hauek egiaztatuko ditu plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

— Ogasunarekiko betebeharrak egunean izatea.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

ANEXO

*Convocatoria 2024 del programa de subvenciones Sukalberri para el impulso del sector de la gastronomía en Gipuzkoa.*

1. *Objeto.*

Convocar para el año 2024 el programa de subvenciones Sukalberri para el impulso del sector de la gastronomía en Gipuzkoa, cuyo objetivo es impulsar la transformación digital del sector de la gastronomía en Gipuzkoa en orden a provocar la transformación de la industria fabricante de aparatos, componentes e instrumentos directamente relacionados con dicho sector, así como del sector de la restauración, y promover la evolución de los modelos de negocio existentes e identificar nuevos, desde el aprovechamiento de las posibilidades que la tecnología ofrece.

Este programa se alinea y complementa a la Misión en torno a la alimentación sostenible que se impulsa en el marco de las iniciativas de Etorkizuna Eraikiz y que pretende contribuir a generar un sistema alimentario sostenible, seguro, saludable y más local, a través de la sostenibilidad social, económica y ambiental, con aumento de la capacidad de autoabastecimiento e impulsando el desarrollo y la competitivdad de tejido empresarial alimentario.

2. *Bases reguladoras.*

Las bases reguladoras generales para la concesión de estas subvenciones fueron aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de junio de 2021 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 119, de 25 de junio de 2021).

3. *Financiación.*

3.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 295.000,00 € con cargo a las siguientes partidas:

1.0520.220.470.00.04.2024: 100.000 €.

1.0520.220.481.00.02.2024: 77.000 €.

5.0520.220.470.00.04.2025: 68.000 €.

5.0520.220.481.00.02.2025: 50.000 €.

3.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

4. *Plazo de presentación de solicitudes.*

4.1. El plazo de presentación de las solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 12 de septiembre de 2024, ambos inclusive.

4.2. Los proyectos no podrán haberse iniciado con anterioridad a la presentación de la solicitud.

5. *Documentación interoperable y verificable.*

Los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa verificará en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público serán los siguientes:

— Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

— Estar al corriente de sus obligaciones con Hacienda.

En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

EK\CV GAO-I-2024-05023

*6. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

6.1. «Dirulaguntzen ataritik» sartuko da eskatzailea eskaerara. Eskaeran, eskatzailearen identifikazio datuez gain, erantzukizuneko aitorpen bat ere jasoko da.

6.2. Eskaera eranskinean dagoen ereduari jarraituz egingo da, eta horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Proiektua baloratzeko galdetegia. Galdetegian proiektuari buruzko hainbat informazio eskatuko da ikuspegi teknikoaren aldetik eta merkatuaren ikuspegitik, eta baita ere enpresari buruzko informazioa, eta duela gutxiko eta aurreikusitako bilakaerari buruzko datuak, beharrezkoak baitira enpresa proiektuaren bultzada-gaitasuna ebaluatzeko.

b) Dirulaguntza eskatzen den proiektuko jardueren kronograma: jarduera bakoitzeko ezarritako datak eta dagozkion kostuak zehaztu beharko dira.

c) Aurrekontu xehatua formatu estandarrean.

d) Proiektuaren azalpen zabaldua, gehienez 10 orrikoa.

e) Proiektuan inplikatutako teknologiak eta irismena.

f) Edukiz gero, genero berdintasunaren eta euskararen arloko entitate eskumendunek igorritako ziurtagiriak, edo dagozkien planak eta planak ezarri izanaren frogak.

g) Erantzukizunpeko adierazpena eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, ez dagoela Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusten diren onuradun izateko eragozten duten egoeratan eta ez dagoela 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23. artikuluaren 2. zenbakiak adierazitako debeku-kasuetako baten mende.

*7. Eskaerei buruzko erabakia hartzea eta jakinaraztea.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesatuak legitimatuta daude dirulaguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, organo emaileak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

*8. Dirulaguntzak zuritu eta ordaintzea.*

8.1. Diruz lagundu diren proiektuak 2025eko irailaren 19a baino lehen justifikatu beharko dira.

8.2. Onartutako dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

— Entitate onuradunek hilabeteko epea izango dute laguntzaren lehengo zatia ordaintzea eskatzeko, dirulaguntzari dagozkion jarduketak egiteko beharrezkoa den finantzazio gisa.

— Bigarren zatia ordaintzea eskatzeko, proiektua erabat burutu dutela zurituko dute 2025eko irailaren 11 baino lehen. Ordaintzeko eskaerarekin batera 14 oinarri orokorrean aurreikusitako zurigarriak aurkeztuko dira.

*9. Borondatezko itzulketa.*

Entitate onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuari 16.3 oinarrian zehazten den moduan. Horrela, Departamentuak dagokion ordainketa-gutuna egingo du eta entitate onuradunari emango dio dirulaguntzaren itzulketa egiteko aukera izan dezan.

*6. Documentación que acompaña a la solicitud.*

6.1. A través del «Portal de subvenciones» se accederá a la solicitud, que además de los datos identificativos de la entidad solicitante, incluye la declaración responsable.

6.2. La solicitud se realizará según el modelo que se incluye en el anexo y deberá adjuntarse a la misma la siguiente documentación:

a) Cuestionario para la valoración del proyecto. En el mismo, se requerirá diversa información sobre el proyecto, desde un punto de vista técnico y de mercado, así como de la propia empresa, evolución reciente y prevista, que permitirá evaluar el potencial de tracción del proyecto empresarial.

b) Cronograma de las actividades del proyecto para el que se solicita la subvención: con indicación de las fechas establecidas para cada una de ellas, y sus costes.

c) Presupuesto desglosado según formato estándar.

d) Descripción ampliada del proyecto de un máximo de 10 páginas.

e) Alcance y tecnologías implicadas en el proyecto.

f) En su caso, certificados emitidos por entidades competentes en materia de igualdad de género y/o euskera, o planes correspondientes junto con evidencias de su implantación.

g) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de no estar sometida a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

*7. Resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación no podrá exceder de 6 meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*8. Justificación y pago de las subvenciones.*

8.1. Los proyectos objeto de subvención deberán justificarse antes del 19 de septiembre de 2025.

8.2. El abono de la subvención concedida se realizará en dos pagos:

— Las entidades beneficiarias tendrán un mes de plazo para solicitar el pago de la primera parte de la ayuda, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

— Para solicitar el segundo pago, deberán justificar la realización completa del proyecto antes del 11 de septiembre de 2025, acompañando a la solicitud la documentación justificativa prevista en la base general 14.ª

*9. Devolución voluntaria.*

En el caso de que la entidad beneficiaria proceda a la devolución voluntaria, dirigirá un escrito a la diputada foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, tal y como señala la base general 16.3, a fin de que el Departamento emita la correspondiente carta de pago para que la entidad beneficiara pueda efectuar la devolución voluntaria de la subvención.

EK\CV GAO-I-2024-05023

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

# SUKALBERRI

ESKAERA / SOLICITUD

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Espedientea**<br>**Expediente** | | **Data**<br>**Fecha** | | **Sarrera kodea**<br>**Código acceso** | |

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Eskatzailearen izena**<br>**Nombre del solicitante** | | **Sexua**<br>**Sexo** | |
| **IFZ**<br>**NIF** | | **Posta Kodea**<br>**Código Postal** | |
| **Helbidea**<br>**Dirección** | | **Ataria/Solairua**<br>**Portal/Piso** | |
| **Herria**<br>**Localidad** | | **Lurralde Historikoa**<br>**Territorio Histórico** | |
| **Helbide elektronikoa**<br>**Correo electrónico** | | **Telefonoak**<br>**Teléfonos** | |
| **Kontua**<br>**Cta Cte.** | | **Faxa**<br>**Fax** | |

## HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Pertsonaren izena**<br>**Nombre de la persona** | | **Sexua**<br>**Sexo** | |
| **IFZ**<br>**NIF** | | **Posta Kodea**<br>**Código Postal** | |
| **Helbidea**<br>**Dirección** | | **Lurralde Historikoa**<br>**Territorio Histórico** | |
| **Herria**<br>**Localidad** | | **Telefonoak**<br>**Teléfonos** | |
| **Helbide elektronikoa**<br>**Correo electrónico** | | **Faxa**<br>**Fax** | |

## Onuradun izatearen aitorpena / Declaración de condición de persona beneficiaria

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean,entitatea ez dago 1 /2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, aurreikusten dituen onuradun izateko debeku egoeraren batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak egikarituz, beharrezko egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarenak beteak dituela ziurtatzeko.

☐ Ez dut baimenik ematen Gipuzkoako Foru Aldundiak plataforma korporatiboen bidez egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla.

EK\CV GAO-I-2024-05023

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

☐ No autorizo que la Diputación Foral de Gipuzkoa verifique a través de plataformas corporativas la acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

## 1 Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalen tratamenduak xede izango du dirulaguntzak eman, kudeatu eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzea, hala agintzen baitute 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak eta 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. Xede horren oinarri dira deialdiaren interes publikoa eta bertan parte hartzeko eskaera.

Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozedura eta aurkez daitezkeen erreklamazioak izapidetzeak irauten duen bitartean.

Tratamenduaren arduradun izango da deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia, eta haren aurrean erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak, hari zuzendutako idatzi bidez. Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan ere jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria, ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido al mismo. Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

## 2 Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

EK\CV GAO-I-2024-05023

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

**PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK**
**OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO**

| | Ditu<br>Tiene | | Ez ditu<br>No |
|---|---|---|---|

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurkezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobacion | Zenbatekoa<br>Importe | Onartutako dirulaguntza<br>Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | GUZTIRA/TOTAL | | |

**MINIMIS LAGUNTZEN AITORPENA / DECLARACIÓN AYUDAS MINIMIS**

Gainera, entitate eskatzaileak aitortzen du, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan aurrekontu publikoen kargura finantzatutako erakunde publiko edo pribatuen minimis izeneko dirulaguntza hauek (300.000 baino gutxiagokoak) eskuratu dituela.

Además, la entidad solicitante declara que las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos recibidos en el ejercicio fiscal en curso y durante los dos ejercicios fiscales anteriores, cuyo importe total es inferior a 300.000 son las siguientes.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobación | Zenbatekoa<br>Importe |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | GUZTIRA/TOTAL | |

EK\CV GAO-I-2024-05023

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

**PROIEKTUA / PROYECTO**

**Izena**
**Denominación**

**Proiektuaren azalpena**
**Descripción proyecto**

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

______________________________, 20____ko ____________________(a)ren _______(a)

En ________________________________a _______de _________________de 20___

Izptua.: (Sinadura eta zigilua)

Fdo.: (Firma y sello)

Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).

EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoan zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena:

https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv

HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.

La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH.

El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web:

https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv

El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.

EK\CV GAO-I-2024-05023